

## OHAR OROKORRAK

### BEKEN INFORMAZIOA

Jarraian aurki dezakezue beken inguruko informazio esanguratsuenak.

#### Epea: Irailaren 30a arte. Adi! Ez utzi azken unerarte.

o 2021-2022 ikasturtean bekadun izan ziren ikasleekiko, eskaera telematikoki bideratu ahalko duzue honako [ESTEKA](#)n sakatu. (Firefox-Mozillarekin ireki)

o 2021-2022 ikasturterako eskatzaile berriak: Telematikoki bideratu ahalko duzue eskaera horretarako, honako [ESTEKA](#)n sakatu. Bertan erregistratu eta eskatzen dituen datuak bete. (Firefox-Mozillarekin ireki)

o ESKAERAK PAPEREAN EGITEA: Ikastolak eskabide-inprimakia emango dizue. Horretarako, [zarautz@ikastola.eus](mailto:zarautz@ikastola.eus) helbidera datu hauek bidali behar dituzue.

- Ikasleen izena eta abizenak eta jaiotze egunak
- Guraso edo arduradunaren izena eta abizenak eta NAN zenbakia eta iraungitze data.
- Guraso edo arduradunaren jaiotze eguna
- Guraso edo arduradunaren telefono mugikorren zenbakia
- E-maila
- Ikastolan sortuko dugu eskabide-inprimakia eta seme edo alabaren bitartez helaraziko dizuegu.
- Inprimakia begiratu eta datuak zuzen dauden konprobatu, edo hala badagokio bertan zuzendu eta onetsi behar duzue, dokumentuaren atzeko aldean zuen datuak jarri eta sinatuz.

Dokumentua seme edo alabarekin bueltatu eta idazkaritzan utzi dezala edo tutoreari utzi diezaiola.

Erantsi beharreko dokumentazioa: eskabide-inprimakian zerrendatutakoa. **Ez utzi mesedez azken unerako!**

---

### IKASTOLARA SARRERA

Ikastolara sarrera 8:55ean egiten has daiteke. Eskertuko genuke ordu hori baina lehen ikasleak barrura ez sartzea, irakasleak prestaketa lanetan jarduten dira eta harrera egiteko prest ordu horretatik aurrera egoten baitira.

---

### BOTILA URA

Ikasle bakoitzak bere botila ura ekarri beharko du.

## ZAINDU DEZAGUN IKASTOLA

Ikastola berritzen ari garen honetan, dagoeneko, iparraldeko fatxada berrituan hurrek egindako marrazkiak agertu dira. Baita bizikletak margotu berri dagoen lekuan uzteagatik egindako markak ere. Eskertuko genuke arretaz ibili eta guztiona dugun Ikastola denon artean zaintzea.

---

## GURASO ESKOLA

Familia agurgarriak, ikasturte honetan ere, Familia Eskola martxan jartzeko gogo biziz gaude eta ahalik eta guraso gehien parte hartzea dugu helburu. Horretarako, aurreko urteetan parte hartu duten zenbait gurasoen testigantzak ikusgai dituzue ondoko aurkezpen-bideoan, zertan datzan jakin zazuen. Mezu hau aprobetxatu nahi dut bihotzez eskerrak emateko bideoa egitera animatu zareten guraso guztioi! Bideoa:



[BIDEOA IKUSI](#)

Parte hartzeko asmoa baduzue, aurretiko izen-ematea egin dezakezue ondoko esteka honetan:

<https://forms.gle/Fk6PhF1MHjJShyG87>

Epea: Irailak 26.

Eskaera guztiak ditugunean, taldeak osatzen ditugun baloratu behar dugu, zuek aipatutako ordutegi/egun eta zuen seme-alaben adinek bateragarri direla ziurtatzen badugu. Era berean, ordaindu beharreko kuota ere, momentu horretan zehaztuko dugu. Guzti honen ondoren egingo dugu behin betiko izen-ematea.

Animatu parte hartzera!!!

---

## IRRIBARRA KILOMETROAK 2022

KMKtik laguntza eske gatoz!

Eguneko antolaketakarako Uzturpe Ikastolak laguntza behar du, ikastola txikia da eta denen laguntza behar dute. Animatu eta eman izena.

Eskerrik asko.

## [IZENA EMAN](#)



## HH OHARRAK

### HH4 GURASO BILERA

Irailaren 19an, HH4ko gurasoekin egingo den gelako guraso bilerara deitzen zaituztegu, arratsaldeko 17:00etan. Bilera, bakoitza bere gelan izango da.

---

### HH5 GURASO BILERA

Irailaren 20an, HH5eko gurasoekin egingo den gelako guraso bilerara deitzen zaituztegu, arratsaldeko 17:00etan. Bilera, bakoitza bere gelan izango da.

---

## LH OHARRAK

### LH3-LH4-LH5-LH6 ESKOLA KIROLA

Denboraldi berri bati ekitera goaz, eta hemen duzue izena emateko galdetegia  
<https://forms.gle/4XKLVSDxqHYiFEea9>

Gure antolaketari buruzko informazio guztia [www.salbatoreskolakirola.com](http://www.salbatoreskolakirola.com) webgunean topatuko duzue. Ezkerreko menuko GIDA atalean ikusiko duzue gure eskola kirolaren antolaketari buruzko azalpena. Egutegia eta gainerako atalak informazio osoa jaso ahala osatzen joango gara.

Azken urteetan denboraldi arrunt eta erosorik ez dugu izan, eta aurtengoa ere ez da erraza izango. Gure jolaserako ia eremu osoa ez dago erabilgarri berrikuntza-lanak direla eta. Beraz, aurtan, entrenamenduak egiteko izango ditugun eremuetan ez dugu nahi besteko azpiegiturarik izango. Pazientziaz hartu beharko dugu, ditugun baldintzetara moldatu, eta dugun apurrari onena ateratzen saiatuko gara.

Gela bereko ikasleekin osatutako taldeak egin behar izan ditugu azken bi denboraldietan pandemiaren ondorioz, baina aurtan berriz gelak nahasteko aukera dugu. Talde bakoitzean gela ezberdinetako ikasleak elkartuko dira. Talde bakoitzeko gurasoen arteko komunikazioa eta harremana errazteko, bilera bat egingo dugu talde bakoitzarekin. Mailako bilerak egingo egun beretan egingo ditugu bilera horiek: LH3koak irailaren 27an, LH4koak irailaren 26an, LH5ekoak irailaren 22an eta LH6koak irailaren 21ean. Bilera horiek guztiak mailako bileren ostean egingo dira, gimnasioan, eta han esango dizuegu haur bakoitza zer taldetan egongo den. Oso garrantzitsua da bilera horietan ikasle guztien gurasoak egotea, taldeko beste gurasoak ezagutzeko eta antolaketaren oinarriak ezartzeko. Urteko antolaketari buruz eta ditugun helburuei buruz hitz egingo dugu, denok norabide berean eragiteko asmoz.

Beraz, beste behin ere, zuen laguntza eta babesarekin dugunari onena aterako diogulakoan, animatu eskola kirolean parte hartzera!

## KIROL AZPIBATZORDEA

---

### LH4 BERTSOLARITZA - MOTIBAZIO SAIOA

Irailaren 19an, astelehenean, LH4ko ikasleek Motxian-Etxebeltz Bertsoguneko kideen eskutik motibazioaioa jasoko dute

**LH5**  
**GURASO BILERA**

Irailaren 22an, LH5ko gurasoekin egingo den gelako guraso bilerara deitzen zaituztegu, arratsaldeko 18:00etan. Bilera, bakoitza bere gelan izango da.

---

**LH6**  
**GURASO BILERA**

Irailaren 21an, LH6ko gurasoekin egingo den gelako guraso bilerara deitzen zaituztegu, arratsaldeko 18:00etan. Bilera, bakoitza bere gelan izango da.

---

## DBH OHARRAK

### DBH GORPUTZ HEZKUNTZA

2022-2023 ikasturtean zehar obretan jarraituko dugunez DBHko maila guztiek Gorputz Hezkuntza Udal kiroldegian egingo dute.

---



## OHAR OROKORRAK/ NOTIFICACIONES GENERALES

### BEKAK / BECAS

A continuación os incluimos los puntos más importantes:

**Plazo: hasta el 30 de septiembre. ¡Atención! No lo dejes hasta el último momento.**

o Alumnado becario en el curso 2021-2022, podréis canalizar telemáticamente la solicitud mediante el siguiente enlace [ESTEKA](#): (Abrir con Firefox-Mozilla)

o Nuevos solicitantes para el curso 2021-2022: podrán canalizarlo telemáticamente, mediante el siguiente enlace: [ESTEKA](#) , donde se registrarán y cumplimentarán los datos requeridos. (Abrir con Firefox-Mozilla).

o SOLICITUDES EN PAPEL: la ikastola os facilitará el impreso de solicitud. Para ello, deben enviar los siguientes datos a [zarautz@ikastola.eus](mailto:zarautz@ikastola.eus).

- Nombre y apellidos y fechas de nacimiento de los/as alumnos/as.
- Nombre y apellidos y número de DNI y fecha de caducidad del mismo, del tutor/a o responsable.
- Fecha de nacimiento del tutor/a o responsable.
- Número de teléfono móvil del tutor/a o responsable.
- E-mail
- Crearemos el formulario de solicitud en la ikastola y se lo haremos llegar a través de su hijo / hija. Revisad el formulario y comprobad si los datos son correctos o, en su caso, corregirlos. Una vez corregido en su caso el formulario, deben firmarlo AMBOS tutores firmando en la parte trasera indicando sus datos.
- Devolver el documento con el hijo/a y dejarlo en la secretaría o entregarlo al profesor/a.
- La documentación a adjuntar se incluye en el impreso de solicitud.

**Por favor, no lo dejéis para el último momento.**

## IKASTOLAKO SARRERA / ENTRADA A LA IKASTOLA

La entrada a la ikastola comienza a las 8:55 horas. Agradeceríamos que los alumnos/alumnas no entren a las aulas antes de dicha hora, ya que los profesores suelen estar preparando los materiales ect.. y están dispuestos a recibirles a partir de esa hora.

---

## UR BOTELLA / BOTELLA DE AGUA

Cada alumno/alumna deberá traer su botella de agua.

---

## ZAINDU DEZAGUN IKASTOLA / CUIDEMOS LA IKASTOLA

Ahora que estamos renovando la ikastola ya han aparecido dibujos realizados por niños en la renovada fachada norte. También las marcas por dejar las bicicletas donde se acababa de pintar. Agradeceríamos que tuviésemos cuidado y cuidemos entre todos una Ikastola que es de todos.

---

## GURASO ESKOLA / ESCUELA DE PADRES

Queridas familias, estamos con muchas ganas de poner en marcha la Escuela para Familias en este curso también y como queremos que cuantos más seáis mejor, hemos preparado un video en el que madres y padres que han tomado parte en los cursos pasados os cuenten su visión para que veáis de qué se trata. Aprovecho este mensaje para agradecer de corazón a tods@s l@s que habéis participado en el video:

 [VER VIDEO](#)

Si os animáis, podéis hacer una preinscripción en el siguiente enlace:

<https://forms.gle/8SjM6vRUkk8hSqn8>

Fecha límite: 26 de septiembre

Cuando recopilemos las solicitudes, valoraremos la formación de los grupos, en función a las disponibilidades de días, horarios, edades de vuestr@s hij@s que hayáis seleccionado. Asimismo, definiremos la cuota a pagar por cada participante en ese momento. Y con todo esto, pondremos en marcha la inscripción definitiva.

¡Animaros a participar!

---



## **IRRIBARRA, KILOMETROAK 2022**

Desde KMK venimos a pedir ayuda. Para la organización del día Uzturpe Ikastola necesita ayuda, es una ikastola pequeña y necesitan la ayuda de todos.

Anímate y apúntate.

Gracias.

**[INSCRIBIRSE](#)**



## HH OHARRAK / NOTIFICACIONES HH

### **REUNION DE PADRES/MADRES de HH4**

Os convocamos a la reunión de padres/madres que celebraremos el próximo día 19 de septiembre a las 17:00 de la tarde cada uno en su aula

---

### **REUNION DE PADRES/MADRES de HH5**

Os convocamos a la reunión de padres/madres que celebraremos el próximo día 20 de septiembre a las 17:00 de la tarde cada uno en su aula

### LH3-LH4-LH5-LH6 DEPORTE ESCOLAR

Vamos a iniciar una nueva temporada y aquí tenéis el cuestionario de inscripción <https://forms.gle/4XKLVSDxqHYiFEea9>

Encontraréis toda la información sobre nuestra organización en [www.salbatoreskolakirola.com](http://www.salbatoreskolakirola.com) . En el apartado GIDA del menú de la izquierda veréis la explicación sobre la organización del deporte escolar. El calendario y el resto de apartados se irán completando a medida que recibamos la información completa.

En los últimos años no hemos tenido una temporada normal y cómoda, y la de este año tampoco será fácil. Prácticamente toda la zona del patio no está disponible por obras. Por lo tanto, este año, en las zonas de las que dispondremos para realizar los entrenamientos no tendremos la infraestructura deseada. Tendremos que tomarlo con paciencia, adaptarnos a las condiciones que tenemos e intentar sacar lo mejor de lo poco que tenemos.

Hemos tenido que hacer grupos con el alumnado de la misma clase en las dos últimas temporadas debido a la pandemia, pero este año tenemos la oportunidad de volver a mezclar las aulas. En cada grupo juntaremos a alumnado de diferentes aulas. Para facilitar la comunicación y relación entre los padres y madres de cada grupo, realizaremos una reunión con cada grupo. Las reuniones de cada curso se celebrarán: el 27 de septiembre LH3, el 26 de septiembre LH4, el 22 de septiembre LH5 y el 21 de septiembre LH6. Todas estas reuniones se celebrarán tras las reuniones de curso en el gimnasio, donde os indicaremos en qué grupo estará cada cual. Es muy importante que en estas reuniones estén presentes los padres y madres de todo el alumnado para conocer a los otros padres y madres del grupo y sentar las bases de la organización. Hablaremos de la organización anual y de los objetivos que tenemos, con la intención de trabajar en la misma dirección.

Así que, una vez más, confiando en que sacaremos lo mejor con vuestra ayuda y apoyo, ¡animaros a participar en el deporte escolar!

**KIROL AZPIBATZORDEA**

---

#### LH4

#### BERTSOLARISMO - SESIÓN DE MOTIVACIÓN

El lunes 19 de septiembre los alumnos de LH4 recibirán una sesión de motivación de manos de los miembros de Motxian-Etxebeltz Bertsogune

---

#### LH5

#### REUNION DE PADRES/MADRES

Os convocamos a la reunión de padres/madres que celebraremos el próximo día 22 de septiembre a las 18:00 de la tarde cada uno en su aula

---

#### LH6

#### REUNION DE PADRES/MADRES

Os convocamos a la reunión de padres/madres que celebraremos el próximo día 21 de septiembre a las 18:00 de la tarde cada uno en su aula

---

**DBH**  
**EDUCACIÓN FÍSICA**

Durante este curso, al continuar las obras en la Ikastola, todos los cursos de la ESO recibirán las clases de Educación Física en el Polideportivo Municipal.

Besterik gabe, agur bero bat.  
ZUZENDARITZA

**SALBATORE MITXELENA IKASTOLA**

Maria Etxe-txiki kalea 14,  
20800 Zarautz  
Tif: 943 831 752

[zarautz@ikastola.eus](mailto:zarautz@ikastola.eus)



[zarauzkoikastola.eus](http://zarauzkoikastola.eus)